



Probaren erregelamendua

1. Bide Berdearen Eguna 2024ko irailaren 15ean ospatuko da, eta aurtengoa bere hamalagarren edizioa izango da.
 2. Arabako Mendialdeko Kuadrillak, TEDERek (Lizarraldeko Landa Garapeneko Zentroa) eta Vasco Navarro Trenbidearen Ibilbide Berdea Elkarrekin batera antolatu duten jarduera honek naturan kirola sustatzea du helburu. Parte hartzen dutenei Bide Berdearen ingurune naturala -Arabako Mendialdean eta Lizarraldean- erakutsiko zaie.
 3. Bide Berdearen Egunaren barruan bi martxa antolatu dira:
 - Bizikletaz, Ancinetik Santikurutze Kanpezura (16 km inguru).
 - Oinez, Maeztutik (Zumalde igueriletik) Santikurutze Kanpezura (13km inguru). Ondoren, Santikurutze Kanpezura hainbat jarduera egingo dira (ipuin-kontalaria eta hamaiketakoa).
 4. Martxak 11:00etan hasiko dira bizikletaz eta 9: 30ean oinez. Aurrez izena emateko orduan, parte hartzeko modalitatea aukeratu beharko da (oinez edo bizikletaz).
 5. Ekitaldia amaitzean, antolatzaileek autobus zerbitzua eskainiko dute hala nahi duten parte-hartzaileak Santikurutze Kanpezutik bizikleta-martxaren hasierako herriraino eramateko. Ez da bizikletarik garraituko.
 6. Martxa horiek ez dira lehiakorak.
 7. Bi martxak adin nagusiko zaleei edo lagundutako adingabeei zuzenduta daude, federazio-lizentzia izan ala ez.
 8. Gehienez ere 400 parte-hartzailek hartuko dute parte, izen-ematearen ordena zorrotz jarraituz.
 9. Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute martxaren erregelamendua betetzeko, eta beren eta Bide Berdeko gainerako parte-hartzaile zein erabiltzaileen segurtasuna zainduko dute.
 10. Izena emateko moduak:
 - Aurreinskripzioak: 2024ko irailaren 13ra arte (online).
 - Martxaren egunean, irteera-herrietan, 09:00etatik aurrera.
- Izena emateko inprimakia eta martxaren erregelamendua eskuragarri egongo dira www.arabakomendialdea.eus eta www.teder.org webguneetan. Aurreinskripzioa egiteko, formularioa, arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus helbidera bidali behar da atal guztiak beteta.
- Prozesua arintze aldera, komeni da izen-ematea martxaren eguna baino lehen egitea, eta martxaren egunean dortsala ordaintzea eta biltzea bakarrik. Hala ere, nahi dutenek izena eman dezakete martxaren egunean bertan, fitxa betez.
11. Inskripzioaren zenbatekoa: 2 €. Izen-ematea martxaren egunean bertan ordainduko da **eskudirutan**, bai aurrez izena eman dutenek bai ibilaldiaren egunean izena eman nahiago dutenek.
 12. Antolatzaileek eskubidea dute martxaren ibilbidea aldatzeko, edozein arrazoik horretara behartzen baditu.
 13. Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko parte-hartzaileen egintzen erantzukizuna, ez eta antolamenduarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik horiek izan ditzaketen kalteen erantzukizuna ere; ezta lapurreta, galtze edo bestelako gertaerengatik objektu pertsonalak galtzen edo hondatzen badira ere. Era berean, parte-hartzaileek antolakuntza salbuesten dute, osasun arrazoiak direla eta, ibilaldian parte hartzean izan ditzaketen kalteengatik.
 14. Parte-hartzaileek onartzen dute probatik kanpoko hirugarren bati istripu bat eragin diezaioketela, eta beraien gain hartzen dute istripu horren gaineko erantzukizun osoa, eta antolakuntza kanpo uzten dute istripu horien ondoriozko erantzukizunetatik.
 15. Antolatzaileek istripu-aseguru bat kontratatuko dute parte-hartzaile guztientzat, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
 16. Datu-pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, parte-hartzaileen datu-pertsonalak probaren inskripzioa eta haren ondoriozko gorabeherak kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak egikaritzeko, posta elektronikoko bat bidali behar da helbide honetara: arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus.
 17. Irudi-eskubideak. Parte-hartzaile guztiek baimena ematen diete antolatzaileei eta haien babesleei ibilaldiaren testuinguruan grabatutako bideo edo argazki guztiak libreaki erabili eta argitaratzeko.
 18. Izena ematen dutenek erregelamendu hau onartu eta betetzeko konpromisoa hartzen dute., eta 849/1993 Errege Dekretuaren arabera ekitaldirako kontratatutako istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak estaltzen ez dituzten kalte-ordainei uko egiten diete.